

**Energia berriztagarriak**

**Herrigintzatik sortutako ekimenak, etorkizuneko irtenbidea?**

**Energías renovables.**

**Las iniciativas ciudadanas, ¿una solución de futuro?**

**Énergies renouvelables.**

**Les initiatives citoyennes, une solution d'avenir?**

Hiritarren parte-hartzerako foroak  
Foros de participación ciudadana  
Forums pour la participation citoyenne

**2016.12.13**

**Beralandeta Aretoa (Bera, Nafarroa)**

**10:00 17:30**

**Toki mugatua / Aforo limitado / Capacité limitée**

**943 31 08 55**

**EMAITZA-TXOSTENA**  
**INFORME DE RESULTADO**  
**BILAN DES RÉSULTATS**

[Bideoak / Vídeos](#)

[Argazki galeria fotos](#)



## Berako foroa

### Energia berriztagarriak: Herrigintzatik sortutako ekimenak, etorkizuneko irtenbidea

Azken urte hauetan aditu askok energia merkearen garaia bukatu dela ohartarazi digute. Badirudi garai berriak datozela, energiaren garestitzea ez baita gasolindegia eta berogailuaren fakturretan bakarrik nabariko. Zirrikitu guztietan sartzen diren beso luzeak omen ditu energiak.

Arazo horren aurrean, mendebaldean hain gogoko dugun ikuspegi kartesiarrari jarraiki, kapitulu berri bat sortzea erabaki dugu, espezialitate berri bat, departamentu berri bat, formakuntza berri bat, ikerketa esparru berri bat, Energia izenekoa. Energia berriztagarriak garatu behar omen dira, berdeak, garbiak. Eta energia aurrezteko teknologia berriak ikertu behar omen dira. Egoera zaila da, baina zientziak aurkituko du zer edo zer.

Energia ez da teknologia bat, ez da natura baliabide bat. Energia gure eguneroko bizitzako ekintza askotarikoak aurrera eramateko ahalmena da. Eta iraunkortasunean oinarritutako gizarte bat sortu nahi badugu, energiaren ikuspegi linearretik irten beharko dugu.

Beharrezkoa dugu energiaren betaurrekoak jartzea, egun batez behintzat, eta arlo guztiak energiaz koloretaturik daudela konturatuko gara.

Gaia konplexua da oso. Adituen eskuetan utziko dugu? Askotariko ekimenak garatzen hasiko gira eta bidea eginez definituko dugu? Herrigintzatik sortutako proiektuak zein pixu izanen dute hurrengo urteetan? Eta ekimen hauek, gure beharrei erantzuteaz gainera, gure herriak duen dependentzia energetikoaz ohartaraziko gaituzte?

Alemania eta Dinamarka izan dira azken urteetan herrigintzatik sortutako proiektu gehien abiarazi dituzten herrialdeak. Alemaniaren kasuan, azken 4 urteetan instalatu den energia berriztagarrien potentziaren erdia baino gehiago herritarren kooperatibek eginiko inbertsioak izan dira.

Euskal Herrian ere baditugu horrelako kooperatibak; I-ENER, Enercoop eta Sugarai iparraldean, GoiEner eta Energia Gara hegoaldean.

I-ENER ek jada burutu ditu energia berriztagarrien proiektu ezberdinak iparraldean eta GoiEner ek jada 5000 bazkide ditu zeintzuk argindar berriztagarria erosten duten.

Herritarren ekimen hauek zilegitasun gero eta handiagoa hartzen ari dira udal, gobernu eta europar komisioaren aurrean. Europar batasunaren energia politikek, herritarren ekimen hauek sustengatzeko gomendioak definitzen ditute eta europako hiri eta herri ezberdinetako udalek gomendio hauek jarraitu dituzte kooperatiba hauekin akordua sinatuz.

Gurean Berako udala izan zen aintzindaria. 2014 ean GoiEner kooperatibako lehen udal bazkidea izan zen eta alkate andereak jakinarazi zuen udal taldeak GoiEner proiektuarekin bat egin zuela, proiektuak ekonomia jasangarria bultzatzeaz gain, energia berriztagarri eta deszentralizatuen inguruko herritarren parte hartzea sustatzen duen eredu baten alde egiten duelako.

### DINAMIKA

Gaian murgiltzeko Xabier Zubialdek eman zuen hitzaldiaren ostean, partaideak bi zatitan banatu ziren, lan-hizkuntzaren arabera: gaztelania eta Euskara.

Talde bakoitza dinamizatzaile baten gidapean egon zen eta helburu ezberdinak finkatu zituzte: gaztelarazko taldean 2030. urtean jarri zen zerumuga; euskarazkoan, aldiz, 2050. urtean. Era berean, helburu horietara iristeko garatu beharreko ekimenak identifikatu ziren.

## Foro de Bera

### Energías renovables: ¿son las iniciativas ciudadanas una solución de futuro?

En los últimos años los expertos nos están llamando la atención sobre el fin de la era de la energía barata. Parece que se avecinan nuevos tiempos, ya que el encarecimiento de la energía no se hará notar solo en la gasolinera o en la factura de la calefacción. La energía dispone de largos tentáculos que se sienten en todos los rincones.

Frente a este problema, y según la visión cartesiana que tanto nos gusta en occidente, hemos decidido crear un nuevo capítulo, una nueva especialidad, un nuevo departamento, una nueva formación, un nuevo ámbito de investigación, llamado Energía. Parece ser que se han de desarrollar las energías renovables, verdes, limpias. Y que hemos de investigar en nuevas tecnologías para ahorrar energía. La situación es difícil, pero la ciencia encontrará un camino.

La energía no es una tecnología ni un recurso natural. La Energía es la capacidad de llevar adelante multitud de actividades de nuestra vida cotidiana. Y si queremos crear una sociedad basada en la sostenibilidad, tenemos que alejarnos de la visión lineal de la energía.

Necesitamos ponernos las gafas de la energía, aunque sea por un día, y nos daremos cuenta de que todos los ámbitos de la vida están coloreados por ella.

El tema es muy complejo. ¿Debemos dejarlo en manos de los expertos? ¿Debemos empezar a desarrollar acciones diversas y definirlo haciendo camino? ¿Qué peso tendrán las iniciativas surgidas de la ciudadanía en los próximos años? ¿Y estas iniciativas, además de responder a nuestras necesidades, nos harán darnos cuenta de nuestra dependencia energética?

Los países que más proyectos surgidos de iniciativas ciudadanas han puesto en marcha en los últimos años son Alemania y Dinamarca. En el caso alemán, más de la mitad de la potencia generada por energías renovables en los últimos cuatro años, son inversiones realizadas por cooperativas ciudadanas. También en Euskal Herria disponemos de este tipo de cooperativas; I-ENER, Enercoop y Sugarai en Iparralde, y GoiEner y Energia gara en hegoalde.

I-ENER ya ha desarrollado diversos proyectos de energías renovables en Iparralde, y GoiEner dispone ya de más de 5000 socios que compran electricidad renovable.

Estas iniciativas ciudadanas están adquiriendo cada vez más legitimidad frente a ayuntamientos, gobiernos y comisiones europeas. Ayuntamientos de diferentes pueblos y ciudades de Europa siguen las recomendaciones dictadas por las políticas energéticas de la Unión Europea a la hora de firmar convenios y acuerdos con estas cooperativas.

En nuestro entorno, el Ayuntamiento de Bera fue pionero. En 2014 se convirtió en el primer municipio socio de la cooperativa GoiEner ya que consideró que el proyecto, además de promover la economía sostenible, compartía con ellos un modelo que impulsaba la participación ciudadana en torno a las energías renovables y su descentralización

### DINÁMICA


Tras la charla de Xabier Zubialde para introducirnos en el tema, los asistentes se dividieron en dos grupos en función del idioma de trabajo: castellano y euskera.

Cada uno de los grupos estuvo dirigido por un dinamizador y tuvieron objetivos diferentes: el grupo de castellano se planteó un horizonte más cercano (2030) y el grupo de euskera, un horizonte más lejano (2050) así como las acciones a realizar para el logro de los objetivos identificados.





*Grupo en castellano  
Mod. David García Castillo*





<p>Las <b>iniciativas locales y cooperativas</b> relacionadas con la producción y consumo son <b>centrales</b> en el modelo de funcionamiento de la sociedad:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• La <b>producción y gestión</b> de la energía y de su cadena de valor la llevan a cabo <b>empresas locales</b>.</li> <li>• Los <b>modelos cooperativos</b> y locales que han adquirido más <b>protagonismo</b> desde la praxis. Los valores de la ciudadanía comienzan a variar: suficiencia autocontención se reafirma a la idea de que <b>crecimiento no es igual a felicidad</b>.</li> <li>• <b>Conciencia social</b> para un <b>uso responsable</b> de la energía que con lleva al auto abastecimiento, soberanía energética, auto producción y producción local la producción más cerca del punto de consumo.</li> <li>• Empoderamiento y <b>soberanía energética</b>, libertad para tomar decisiones con criterio.</li> <li>• <b>Sistemas eficientes</b> de producción y distribución energética para el autoabastecimiento</li> <li>• Escala: <b>modelo escalable</b> y reproducible no sólo en Euskal Herria: lo que es bueno aquí no tiene que perjudicar a los demás, sino favorecer.</li> <li>• Mayor <b>conciencia del precio energético</b>, no sólo de lo más evidente sino del consumo en general: el ejemplo asociado sería un modelo sociedad que no demanda tomates en invierno. (ejemplo dado en la charla por la mañana por Xabier Zubialde)</li> </ul>	<p>En cuanto al <b>modelo de consumo y sociedad</b>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Se reduce el consumo individual en un 50% lo que trae como consecuencia una <b>disminución</b> del uso de energía. Esta reducción se ha hecho de forma voluntaria y organizada, desde la toma de consciencia</li> <li>• Hay un <b>reparto igualitario y resiliente del trabajo</b></li> <li>• La sociedad se <b>adaptado</b></li> <li>• Han aumenta enormemente las <b>energías renovables</b>.</li> </ul>
---	--



<p><b>La tecnología no ha resuelto los problemas:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>No se han desarrollado tecnologías eficientes</b> de producción renovables que permiten un modelo más diversificado.</li> <li>• La creencia/promesa de que la tecnología va a solucionar todo <b>no ha funcionado</b>. Los procesos de privatización de todo ámbito imaginable se intensifican.</li> <li>• Status quo y <b>aumento del petróleo no convencional</b> (aumento del riesgo de colapso)</li> </ul>	<p>Los <b>problemas se agravan</b> y la sociedad va hacia el abismo:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Desregulación climática.</b></li> <li>• <b>Falta de reacción.</b></li> <li>• La tendencia se mantiene: el modelo energético es el mismo y <b>no hay cambio</b> en los hábitos de consumo.</li> <li>• No hay consciencia sobre la importancia de racionalizar el uso de la energía: <b>incapacidad de adaptarse</b> a los cambios necesarios.</li> </ul>	<p>La sociedad sufre los cambios y <b>aumentan los problemas</b>. Se reduce el consumo individual en un 50% respecto al actual pero de forma desordenada y dramática:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Descenso del PIB aumento del <b>desempleo</b></li> <li>• Aumento de la <b>desigualdad</b></li> <li>• <b>Bancarrotas</b> de los servicios públicos</li> </ul>
--	--	---



<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aumento del poder y de la <b>influencia de las iniciativas alternativas</b> existentes hoy.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eficiencia global del consumo</b>, no sólo energética.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistema económico que integra costes de externalidades, <b>PIB diferente</b>.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Reflexión:</b> ¿cuál es nuestro margen de maniobra?</li> </ul>
---	---	---	--



## ACCIONES A DESARROLLAR PARA IR POR EL BUEN CAMINO

ACCIONES A CORTO PLAZO ( DESDE YA)		
Ámbito de iniciativas ciudadanas	Ámbitos municipal y autonómico	Otros ámbitos
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Crowdfunding</li> <li>• <a href="#">Ecooolocal</a>: Extender este modelo de <b>sensibilización</b> ambiental en las escuelas</li> <li>• Acciones de <b>cambio de hábitos</b> para las nuevas generaciones.</li> <li>• Acciones de sensibilización: La energía nos pertenece a todos/as</li> <li>• Planes de <b>concienciación</b> para entidades locales y sociedad en general redes de iniciativas relacionadas con la energía y otras iniciativas sociales de carácter local.</li> <li>• <b>Autoabastecimiento</b>: cooperativas de consumo energético extender el modelo: tema de reflexión para buscar el mejor modelo: ¿aumento de escala o replicar a otras zonas?</li> <li>• Extender el <b>Car-Sharing</b></li> <li>•</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aumentar las políticas energéticas locales</b>: mayor peso e influencia.</li> <li>• Aumentar la <b>receptividad</b> y el respaldo a las iniciativas locales: Aumentar los eventos y momentos de intercambio entre Gobierno de Navarra y los representantes y actores que están sobre el terreno con iniciativas energéticas, colaborativas y sociales.</li> </ul>	<p><b>Eliminar barreras a la energía solar y otras renovables</b> (ahora no se hace)</p>
ACCIONES A MEDIO PLAZO (2020 - 2030)		
Ámbito de iniciativas ciudadanas	Ámbitos municipal y autonómico	Otros ámbitos
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Llevar a cabo acciones de <b>generalización del modelo cooperativo</b> basado en iniciativas ciudadanas: se amplía su tamaño o se replican en otras zonas haciendo una gran federación.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Trabajar a escalas pequeñas que se suman</b>, no como hasta ahora que se hace de arriba a abajo.</li> <li>• Planificar la escala: municipal, de valle o comarcal? En coherencia con las iniciativas ciudadanas.</li> <li>• Desarrollar <a href="#">iniciativas similares a Güssing (Austria)</a>: I+D+i y desarrollo local basado en iniciativas energéticas colaborativas, con <b>aumento de las energías renovables y racionalización del consumo</b> (en colaboración con iniciativas ciudadanas)</li> <li>• Generalizar los sistemas de alumbrado público eficientes en todos los municipios</li> <li>• Favorecer cláusulas de menor consumo en las licitaciones públicas (aumento de puntos en la evaluación de candidaturas que lo cumplan)</li> <li>• Plan de renovación de viviendas (local, autonómica)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Desarrollar la legislación para posibilitar una <b>transición hacia un nuevo modelo energético</b> (local, autonómico, estatal...)</li> <li>• Acciones de <b>eficiencia</b> y mejora logística</li> <li>• Aranceles para transporte</li> <li>• Iva progresivo aplicado a transporte</li> <li>• Políticas para desmercantilizar las energías: concebir la <b>energía como un bien común</b>, facilitando el acceso a todo el mundo sin una lógica de mercado como la actual: Gestión energética directamente por las entidades públicas</li> </ul>



Euskarazko taldea  
Mod. Iban Lizarralde







- **Energia baloratu** egiten du jendeak eta **arduratsu** jokatzeko du energia erabiltzeko orduan. Jendea kontziente da argindarra sortzea ez dela aintzerria eta kostu ekonomikoaz gain kostu sozial eta ekologiko bat duela.
- **Gizartea autoantolatuta** egin da energia beharrak erantzuteko tokiko aukerak erabiliz.
- Erabiltzen den **energiaren 100% berriztagarria** da.
- **Kontsumo ereduak aldatu** egin dira: eguneroko beharrak asetzeko energia gutxiago mobilizatzen da.
- **Subiranotasun energetikoa** lortu dute lurralde guztiek eta energia mota deszentralizatuak dira nagusi.

- **Eztabaidak:**
  - a. Energiaren inguruko sistema guztiak jabetza publikoak izan behar dira edo jabetza pribatuak eskaintzen al dezake eredu egokirik?
  - b. Energia merkea izatea helburu bat izan behar da?
  - c. Pobrezia energetikotik ateratzeko energia merketu behar al da?
  - d. Teknologia ekarriko ditu soluzioak edo arazoak handituko ditu?



- **Nazioen arteko talkak handitu** egin dira eta gerra gehienek arrazoi nagusia energia kontrolatzea da.
- **Emigrante klimatikoak** kopurua asko handitu da.
- **Pobrezia energetikoa** asko zabaldu da eta gizartearen gehiengoak ezin du energiaren oinarriko beharrak erantzun.
- Energia sistema kutsatzaileen ondorioz **kolapso ekologikora** heldu gara.

- Energia berriztagarriek ez dute lortu zabaltzea eta **petrolioaren azken tantak** erretzen ari gara: eta petrolio modu zikinak ustiatzen.
- Eredu oso **zentralista** nagusitu da.
- Energia oso **garestia** da.
- Kontsumo ereduak ez da aldatu.
- Energiaren sektore ekonomikoak **negozio hutsa** izaten jarraitzen du.



- Energiaren inguruko sistema ezberdinen jabetzak garrantzi handia hartu du eta jabetza **komunalak eta kooperatibak asko zabaldu** dira.
- **Krisi ekologikoa** handitu egin da eta beharturik energia berriztagarriak zabaldu egin dira.
- Familia eta lurralde gero eta gehiagok burujabetza energetiko proiektuak jarri dituzte abian.
- Ekoizpen pribatua da nagusi baina energia berriztagarriak dira sistema gustukoena inbertsoreen partetik.

- **Distribuzio sareak** asko aldatu dira eta tokiko **sare txikiak garrantzi** handiagoa dute.
- Energiaren inguruko sistema ezberdinen jabetzak garrantzi handia hartu du eta **jabetza komunalak eta kooperatibak asko zabaldu** dira.
- **Krisi ekologikoa handitu** egin da eta beharturik energia berriztagarriak zabaldu egin dira.
- Familia eta lurralde gero eta gehiagok energia burujabetza proiektua hasi dituzte.



## Eszenario positiborantz pausuak

